# Hartza eta erlea



*HARTZA:*

*Eztiaren egarriz*
*heldu naiz korrika,*
*nahiz eta ez didazun*
*zuk egin gonbita.*
*Handia izateko*
*behar naiz elika.*
*Zure laguna naiz ta*
*ez nazazu pika.*

*ERLEA:*

*Ez nauzu engainatzen*
*hainbeste komeriz,*
*lapurtzera baitzatoz*
*zu gezur gehiegiz.*
*Gure erleontzira*
*ez etorri berriz.*
*Deabrutxo bat zara*
*aingeru aurpegiz.*

*HARTZA:*

*Zuk oraindik ez nauzu*
*ondo ezagutzen.*
*Esaten dudan dena*
*duzu txarto hartzen.*
*Eztirik ez hartzeko*
*ez du inon jartzen.*
*Eskean etorri naiz*
*eta ez lapurtzen.*

*ERLEA:*

*Egin dugun eztia*
*da geuretzat jana,*
*gose aurpegiz zatoz*
*zeuk jateko dana.*
*Lehenagotik dakigu*
*alferra zarana,*
*baina jan nahi baduzu,*
*egin zazu lana.*

*HARTZA:*

*Horrela hitz egiteko*
*zer bitxo zara zu!*
*Ia kokoteraino*
*eginda naukazu.*
*Duzun ezti guztia*
*azkar emaidazu,*
*erleontzia zutik*
*euki nahi baduzu.*

*ERLEA:*

*Niri bitxo ez deitu,*
*harroputz kirtena!*
*Nire etxean neu naiz*
*agintzen duena.*
*Mingain horretan sartzen*
*badizut eztena,*
*laster kenduko zaizu*
*ezti gose dena.*

ZIHARA ETA OIHANE ENBEITA
*(10 eta 12 urte zituztela)*



LIVEWORKSHEETS

**1** Zer dela eta ari zaio hizketan hartza erleari?

_____

**2** Zer dio erleak hartzaren eskabideaz?

_____

**3** Markatu. Hurrengo adjektiboetatik zein erabiltzen ditu erleak hartzari buruz ari dela?

- ☐ Handia.
- ☐ Alferra.
- ☐ Deabrutxoa.
- ☐ Kirtena.
- ☐ Gezurtia.
- ☐ Harroputza.

**4** Zergatik ez dio eman nahi eztia erleak hartzari?

_____

**5** Eman irakurgaian ageri diren hurrengo hitzen euskal ordainak.

- Pikatu: _____
- Bitxo: _____

**6** Zer erabaki hartu du hartzak erlearen jarreraren aurrean?

_____

**7** Zer-nolako mehatxua egin dio hartzak erleari?

_____

**8** Eta zer erantzun dio erleak?

_____

**9** Bertsoak irakurri ostean, zein iruditzen zaizu bietatik indartsuena? Zergatik?

_____

**10** Azaldu. Zein da, zure ustez, bertso hauen irakaspena?

_____

LIVEWORKSHEETS